BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

215

EBAZPENA, 2012ko urtarrilaren 10ekoa, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziako zuzendariarena. Honen bidez aditzera ematen da irakasle lankideak kontratatu aurreko txostena lortzeko eta irakasle osoak, irakasle agregatuak, irakasle atxikiak eta unibertsitate pribatuetako irakasle doktoreen ebaluazioa eta egiaztapena lortzeko deialdian aplikatzekoa izango dela abenduaren 22ko 5/2011 Legearen 17. artikuluan nahiz abenduaren 23ko 6/2011 Legean ezarritakoa (5/2011 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legea aldatzeko dena; 6/2011 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko 2012. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituena).

Ebazpena, 2012ko urtarrilaren 10ekoa, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziako zuzendariarena. Horren bidez, honako hau jakinarazi nahi dugu: Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren Administrazio Kontseiluaren 2011ko azaroaren 29ko Erabakiaren bidez, irakasle lankideak kontratatu aurreko txostena lortzeko eta irakasle osoak, irakasle agregatuak, irakasle atxikiak eta unibertsitate pribatuko irakasle doktoreen ebaluazioa eta egiaztapena lortzeko deialdia onartu zen (2011ko abenduaren 30eko EHAA); bada, deialdi horretan aplikatzekoa izango da abenduaren 22ko 5/2011 Legearen 17. artikuluan zehaztutakoa nahiz abenduaren 23ko 6/2011Legean ezarritakoa (5/2011 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legea aldatzeko dena; 6/2011 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko 2012. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituena). Horregatik, eskaerarekin batera, legean aurreikusitako tasaren ordainketa egin izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, Agentziaren web orrialdean argitaratutako prozedurari jarraituz (www.unibasq.org).

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urtarrilaren 10a.

Unibasqeko zuzendaria,
JUAN ANDRÉS LEGARRETA FERNÁNDEZ.